

EKONOMIA, ENPRESA ETA GENERO IX JARDUNALDIAK:

«Ekonomia birpentsatzen: zaintzak ardatz»

Eguna: 2025ko martxoaren 17a

Ordua: 11:20

Lekua: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Areto Nagusia (Sarriko)

Online (saio irekia): [Ekonomia, enpresa eta genero IX jardunaldiak](#)

Azalpena:

Jardunaldi hauen bidez enpresa, ekonomia eta zuzenbide arloetan genero ikuspegia barneratzea bultzatu nahi da, bere garrantziaren eta egokitasunaren kontzientzia sustatuz, eta arlo honetan praktika onen eredu eta adibideak aurkeztuz. Aldi berean, unibertsitatean gai honen inguruko hausnarketa ere bultzatu nahi da, bereziki ekonomiaren eta enpresaren eta honen kudeaketaren inguruko irakaskuntza eta ikerketari dagokionez.

Aurtengo edizioak zaintzak izango ditu ardatz, hain zuzen ere sistema ekonomikoari eta enpresen antolakuntzari genero ikuspegitik eragiten dien gai nagusietako bat. Zaintzak, bizitza mantentzeko oinarria, ikusezin egon izan dira eta oraindik ere askotan badaude, eta, aldi berean, haien erantzukizuna nagusiki emakumeena izan da. Egoera horrek lotura zuzena du sexuaren araberako lan-banaketarekin eta produkzio-lanaren eta ugalketa-lanaren arteko bereizketarekin, azken honek balorazio eta aintzatespen txikiagoa duelarik. **Jardunaldian, egoera horrek eragindako problematikan sakonduko da, batez ere egungo testuinguruan, eta eraldaketa sozial eta ekonomiko beharrezko baterako ardatzak planteatuko dira, bai ikuspegi sozio-ekonomikotik, bai ikuspegi juridikotik. Halaber, Maitelan zaintza kooperatibaren esperientzia bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da.**

Egitaraua:

- Jardunaldiaren aurkezpena eta inaugurazioa.
- **Amaia Pérez de Orozco.** Ekonomian doktorea. Colectiva XXK-ko kidea. Ekonomia feministan aditua.
- **Samara de las Heras Aguilera.** Zuzenbidean doktorea, Fem lus-eko aholkulari juridikoa. Emakumeen eskubideen eta berdintasun politiken arloan aditua.
- **Maitelan S.Koop.**
- Eztabaida irekia.

Jardunaldia ikasleei, irakasleei, profesionalei eta, orokorrean, gaian interesa duten pertsona guztiei zuzenduta dago.

Harremanetarako:

Enpresaren Zuzenbidea eta Zuzenbide Zibila Saila.

irati.basoredo@ehu.eus / itziar.villafanez@ehu.eus

IX JORNADAS DE ECONOMÍA, EMPRESA Y GÉNERO: «Repensando la economía: el rol central de los cuidados»

Fecha: 17 de marzo de 2025

Hora: 11:20

Lugar: Facultad de Economía y Empresa (Sarriko), Aula Magna.

Online (sesión abierta): [IX Jornadas de economía, empresa y género](#)

Descripción:

Mediante estas jornadas se pretende impulsar la incorporación de la perspectiva de género en el ámbito económico, empresarial y jurídico, promoviendo la conciencia de su importancia y de su idoneidad, y presentando modelos y ejemplos de buenas prácticas en esta materia. Igualmente, se plantea como objetivo fomentar la reflexión al respecto desde el ámbito universitario, en particular desde el punto de vista de la docencia e investigación en torno a la economía y a la empresa y su gestión.

La edición de este año estará centrada en los cuidados, precisamente una de las cuestiones centrales que afectan al sistema económico y a la organización empresarial desde una perspectiva de género. Los cuidados, base del mantenimiento de la vida, han estado tradicionalmente invisibilizados, a la vez que su responsabilidad ha recaído principalmente sobre las mujeres. Esta circunstancia queda directamente vinculada a la división sexual del trabajo y a la separación entre el trabajo productivo y el reproductivo, siendo este último objeto de menor valoración y reconocimiento. En la jornada **se profundizará en la problemática derivada de esta situación, particularmente en el contexto actual, planteando los ejes para una necesaria transformación social y económica, tanto desde una perspectiva socio-económica como desde la óptica jurídica. Asimismo, se tendrá la oportunidad de conocer de primera mano la experiencia de la cooperativa de cuidados Maitelan.**

Programa:

- Presentación e inauguración de la jornada.
- **Amaia Pérez de Orozco.** Doctora en economía. Integrante de Colectiva XXK. Experta en economía feminista.
- **Samara de las Heras Aguilera.** Doctora en Derecho. Asesora jurídica de Fem Ius. Experta en derechos de las mujeres y políticas de igualdad.
- **Maitelan S.Koop.**
- Coloquio abierto.

La jornada está dirigida a estudiantes, profesorado, profesionales y, en general, cualquier persona interesada en la temática.

Datos de contacto:

Departamento de Derecho de la Empresa y Derecho Civil

irati.basoredo@ehu.eus itziar.villafanez@ehu.eus